



elkarbanatuz

URTEKO MEMORIA

2017KO EKITALDIA

Elkarbanatuz elkartearen zentroetan, programetan eta zerbitzuetan 2017ko ekitaldian egindako jarduera nagusien laburpena.

BULEGOAK:

Madariaga etorbidea, 69
48014 Bilbo

Madalena Jauregiberri, 2
851 P. Ku.
20080 Donostia

Tel.: 944 757 643

Faxa: 944 750 151

info@elkarbanatuz.org www.elkarbanatuz.org

ZENTROAK

BAIKABA

Madariaga etorbidea, 69, etxabea
48014 Bilbo

Tel.: 944 474 499

Faxa: 944 750 151

baikaba@elkarbanatuz.org

HAZTEN

Madariaga etorbidea, 81,
atzealdea (sarrera: Morgan
bidetik) 48014 Bilbo

Tel.: 946 426 447

Faxa: 944 750 151

hazten@elkarbanatuz.org

HIRANKA

Blas de Otero, 39 (sarrera:
Arenatza Kobaren kaletik)
48014 Bilbo

Tel.: 944 764 136

Faxa: 944 765 398

hiranka@elkarbanatuz.org

EGOITZA-BALIABIDEAK

OINEZ SAREA

Bidean (Bilbo)

Ganeko (Bilbo)

ONDOAN

Bilbo

BIDANKA

Ollargan

Galdakao

Santurtzi



AURKIBIDEA:

Esker onak_____	4
Aurkezpena_____	5
Nor gara?_____	6
Lan- eta lanbide-heziketaren arloa_____	8
Egoitzetako esku-hartzearen arloa_____	10
Haurtzaroaren, familiaren eta oinarrizko laguntzaren arloa_____	12
Nazioarteko lankidetzak_____	14
Gizarte-partaidetza_____	15
Administrazioaren eta jarraipen ekonomikoaren arloa_____	16
Lankidetzak-sareak_____	20
Komunikatzeko bideak_____	21
Lagundu iezaguzu_____	22

Esker onak

Esker ona adierazi nahi diegu 2017. urtean lagundu diguten erakunde publiko eta pribatu guztiei:

LA SALLE SAREA



La Salleko Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen Sarea



Kristau Eskoletako Anaiak - FSC

ERAKUNDE PUBLIKOAK



Arrigorriagako Udala



Bilboko Udala, Gizarte Ekintza Saila



Bizkaiko Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritza: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Gizarte Politiketako Sailburuordetza



Eusko Jaurlaritza: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua



Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

ERAKUNDE PRIVATUAK



Bizkaiko Elikagaien Bankua



Antonio Menchaca de la Bodega Fundazioa



Carmen Gandarías Fundazioa



Victor Tapia eta Dolores Sainz Fundazioa



Obra Social "la Caixa"

"La Caixa" Gizarte Ekintza



Caixa - umeen aldeko programa



Incorpora Prestakuntza Guneak

Aurkezpena

Urteko memoria honen bidez, gure lan guztiaren berri eman nahi dizuegu, eta erakutsi nahi dizuegu poliki-poliki gure gizartea eraikitzen eta eraldatzen ari garela, gure oinarri sozialaren, bazkideen eta laguntzaileen laguntzari eta profesionalen lanari esker.

Asko eskertzen dugu urtez urte erakunde publiko eta pribatu ugaritatik jasotzen dugun laguntza, lankidetzeta eta konfiantza. Lankidetzeta hori gure konpromiso publiko eta gardenari jarraituz egiten dugu.

Beste urte batez, lanean jardun dugu gure gizarteko arazoak agerian jartzeko, gizarte-eraginaren bidez. Gure ahaleginak bideratu ditugu gizartea justuagoa eta kohesionatuagoa izan dadin, parte-hartzearen eta sentsibilizazioaren bidez, eta, besteak beste, jardunaldiak, lantegiak, boluntariora eta sare sozialak baliatu ditugu, bitarteko gisa. Halaber, oso modu aktiboan parte hartzen jarraitu dugu kide garen hirugarren sektoreko sareetan, hala nola La Salleko Hezkuntza Ekintzen Sarean, sare horiek funtsezkoak baitira gizarte justuagoa eta inklusiboago bat eraikitzeko.

Gure bokazioaren muinean, haurren eta gazteen aldeko lana dago, eta, beraz, Haurtzaroaren, familiaren eta oinarrizko laguntzaren arloaren bidez, alternatibak eraikitzen jarraitzen dugu, haurren, nerabeen eta haien familien egoera hobetzeko. Badakigu oraina eta geroa direla. Horregatik, gure dedikazioa eta gure baliabideak eskaintzen ditugu, prestakuntza-prozesuak eta prozesu pertsonalak bideratzeko, aukera emango dietenak gaitasunak eta ahalmenak garatzeko. Era berean, haien eskubideak defendatzen ditugu, eta borrokan dihardugu tokian tokiko eta nazioarteko egoera bidegabeak eraldatzeko.

Egoitzetako esku-hartzearen arloan, gazte eta gizon-emakume heldu kopuru handi bati lagundu diogu. Pertsona horiek ahalegin guztiak egin dituzte beren ibilbide pertsonalean eta gizarte- eta hezkuntza-arlokoan aurrera egitea lortzeko. Aibileziak garatu dituzte, eta lan handia egin dute beren bizitzako alderdi ugarian, eta, horri esker, bizi-garapen hobea eta gizarte-partaidetzeta handiagoa eta inklusiboagoa lortu dute.

Lan- eta lanbide-heziketaren arloan, handitu egin dugu laguntza ematen diegun pertsonentzako lan-prestakuntzarako eta -bitartekotzarako orduen kopurua. Horren helburua da pertsona horiek gaitasun handiagoa lortzea eta abilezia jakin batzuk garatzea, lagungarriak izango zaizkienak beti bezain zaila eta zorrotza den lan-merkatuan sartzeko eta beren helburuak behar bezala betetzeko.

Urteko datuek esaten digute kalitatez, eraginkortasunez, erantzukizunez eta pertsona guztien berdintasuna errespetatuz jardun dugula lanean. Zehazki, 1.300 pertsonarekin baino gehiagorekin egin dugu lan. Pertsona horiek konfiantza izan dute gure lanean, eta beren ilusioak eta, kasu askotan, beren itxaropenak jarri dituzte gure eskuetan.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen dedikazioaren, irudimenaren, ametsen eta ahaleginaren bidez gizartea eraldatzen eta egunetik egunera gero eta justuagoa izango den gizarte bat eraikitzen jarraitu nahi duzuen guztioi.

Zuzendaritza Batzordea eta Zuzendaritza Taldea

2017ko abenduaren 31




Nor gara?

Elkarbanatuz irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, eta La Salleko Ekintzen Sareko partaide da. Sare horrek, batez ere, hezkuntzaren eta esku-hartze sozialaren arloan egiten du lan.


Onura publikoko izendapena jaso du, eta partaidetza eta gizarte-aldaketa bultzatzen ditu. Oinarri sozial sendoa dugu; izan ere, 81 bazkide eta laguntzaile inguru ditugu.

Gaur egun, 109 lagunek egiten dute lan gurekin: 37 lagun talde profesionalekoak dira (30 emakume eta 7 gizon), eta 76, boluntarioak (39 emakume eta 37 gizon).

ORGANIGRAMA:



2017an, pertsona hauek osatu dute Zuzendaritza Batzordea eta Zuzendaritza Taldea:



ETORKIZUNeko URRATSAK:

- MISIOA

Elkarbanatuz elkarteak, La Salleren hezkuntza-misioaren bitartez, gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza eskaintzen die gizarte-egoera ahulean dauden pertsoneri, eta lanean ari da gizarte justuago eta kohesionatuago baten alde, zuzenean parte hartuz eta gizartean eraginez.

- IKUSPEGIA

Gizartean eta La Salleren Misioan erreferentziatzeko erakundea izatea, gizartea aldatzeko eta gizarte-egoera ahulean dauden pertsonekin gizarte- eta hezkuntza-arloko lanari dagokionez.

BALIOAK

- Identitate lasallearra
- Elkartasuna
- Senidetasuna
- Lankidetzaren
- Eraginkortasuna
- Erantzunkidetasuna
- Berrikuntza
- Gardentasuna

2017. URTEAN:

- 1.330 pertsonak hartu dute parte gure programetan.
- 480 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte zuzeneko arreta-prozesuetan.
- 750 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte sentsibilizazio-ekintzetan.
- Gure nazioarteko lankidetzaren bidez, 100 pertsonari baino gehiagori lagundu diegu. Pertsona horiek arreta-programetan hartu dute parte.
- Horretaz gainera, 700 pertsonak baino gehiagok jarraitzen digute sare sozialen bidez.


Lan- eta lanbide-heziketaren arloa

Gure helburua zerbitzu eguneratuak eta egokituak eskaintzea da; hau da, pertsonak eta inguruneak markatzen dizkiguten baldintzetara egokituak. Horregatik, gure lan-arloan, lanean dihardugu gizarte-egoera ahulean dauden pertsonen abileziak eta gaitasunak garatzeko, batik bat lan-inguruarekin lotutakoak, horrela beren autonomia hobetu dezaten.

Gure esku-hartzean, gure dinamika propioak txertatzen ditugu, gu lasalletarrak izatearekin lotuta daudenak, eta arreta berezia jartzen dugu gure erakundeko arlo guztietako profesional taldeen arteko koordinaketa-lanean.



2017KO EMAITZA GILTZARRIAK



HAZTEN - LAN PRESTAKUNTZARAKO ZENTROA



«Eginez ikasi» da gure filosofia. Gure helburua ikasleak gaitzea da, haien enplegarritasuna hobetzeko. Horregatik, zentroan ematen diren prestakuntzetan, praktika nabarmentzen da, eta edukiak oinarrizko zeharkako gaitasun batzuekin osatzen dira, enplegu bat mantentzea lortze aldera.

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren zentro laguntzailea gara laguntzailea gara prestakuntzaren arloan. Zenbait profesionaltasun-ziurtagiri eta zeharkako gaitasunei buruzko zenbait prestakuntza emateko akreditatuta gaude. Halaber, La Caixa Gizarte Ekintzaren Incorpora programaren Prestakuntza Guneen sarearen parte gara.

Prestakuntza horiei esker, ikasleei beren ikaskuntza osatzea eskain diezaiekegu, enpresetako prestakuntzarekin. Prestakuntza hori zentroak eta enpresak berak tutorizatzen dute, eta ikasleei aukera ematen die ikasitako ezagutzak benetako egoera batean aplikatzeko, eta, horretaz gainera, atea zabaltzen die enpresamundura.

AURKIBIDE - GIZARTE- ETA LAN-ORIENTABIDERAKO BITARTEKARITZA-ZERBITZUA



Zerbitzu honetan, lan-munduan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen laguntza ematen diegu. Banakako elkarrizketa batzuen bidez eta orientazioko talde-saio batzuen bidez, hautagaien berri ikasten dugu, eta, haiekin batera, enplegu duin bat eskuratzen lagunduko dieten gaitasun sozialak eta profesionalak garatzen ditugu.

La Caixa Gizarte Ekintzaren Incorpora programaren parte gara, eta, horri esker, segimendu pertsonalizatuak egin ditzakegu, aukera ematen digutenak, zenbait saiotan, laguntza jasotzen duen pertsonarekin batera helburu jakin batzuk ezartzeko, poliki-poliki enplegarritasun-maila hobetzera bideratuak.

Urteetan zehar, harreman ona lortu dugu enprekin, elkarrizketen, lankidetzen eta praktiken bidez, eta horrek aukera ematen digu enpresen gaur egungo eta etorkizuneko premien berri jakiteko, eta, horri esker, enpresek eskatzen dituzten profiletara bete-betean egokitzen diren hautagaitzak eskain ditzakegu.

HIRANKA GIZARTERATZE- ZENTROA



Eguneko zerbitzuan, gizartetik baztertua dauden helduei laguntzen diegu. Pertsona horiekin batera, banakako arreta-programa bat diseina-tzen eta garatzen dugu, bizi-egoera pertsonala eta soziala hobetzeko egin beharreko ekintzak eta bete beharreko helburuak bideratzen dituenak.

Pertsonekin batera egiten dugu lan, hau guztia hobetzeko eta mantentzeko: autonomia pertsonala, harremanetarako gaitasuna eta komunitatean moldatzeko eta parte hartzeko gaitasuna.

Profesional espezializatuen etengabeko presentzia berma-tuta dago. Eguneroko esku-hartzea pertsona bakoitzaren erritmora eta harengan hautemandako premietara egokitzen da. Halaber, hainbat mota eta intentsitatetako laguntzak ematen ditugu, egoerak zer eskatzen duen.



Egoitzetako esku-hartzearen arloa

Egoitzetako esku-hartzearen arloa bi egoitza-programak osatzen dute, profil desberdinak eta hezkuntza-laguntza jasotzeko premia-maila desberdinak dituzten pertsoneri zuzenduak: Emantzipaziorako egoitza-programa eta Gizarteratzeko egoitza-programa. Biak koordinatuta daude, pertsona erabil-tzaileen bizi-baldintzetan etengabeko hobekuntza lortzeko.

2017an, gizarte- eta hezkuntza-arloko programak eta zerbitzuak Gizarte Zerbitzuen Legearen Kartera Dekretuaren esparrura egokitzen jarraitu dugu. Hobekuntza-eremuak aplikatu, eta baliabide berriak erabili ditugu pertsonen premia eta problematika aldakorrei erantzuteko.



2017KO EMAITZA GILTZARRIAK



**BIDANKA - GIZARATERATZEKO
EGOITZA-PROGRAMA**


Behin-behineko egoitza-sare bat da, gizarte-bazterkeria pairatzen duten edo pairatzeko arriskuan dauden pertsonentzat. 12 plaza ditu, 3 egoitzetan banatuta.

Erabiltzaileek banakako eta taldeko gizarte- eta hezkuntza-arloko proiektu bat egiten dute, erreferentziako pertsona hezitzaile batek lagunduta eta hezkuntza-taldearekin koordinatuta, gizarateratze-prozesuan autonomia sustatzeko helburuarekin.

2017. urtean, aurrera egin dugu hezkuntza-programaren sistematizazioan, eta, hala, gizarte-egoera ahulean dauden gizarte-beharrei erantzun diegu eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak egokitu ditugu, batez ere banakakoak.


**OINEZ - GAZTEAK
EMANTZIPATZEKO EGOITZA-
PROGRAMA**


Oinez egoitza-baliabideen sarea Bizkaiko Foru Aldundiaren Mundutik Mundura programaren barruan dago, eta 20 plaza ditu, 4 etxebizitzatan banatuta.

Gazteei laguntza integrala ematen diegu. Laguntza integral horretan, gazteak beren prozesuaren protagonista dira, eta helburua da heldutasun- eta autonomia-maila onena lortzea. Laguntza horren bidez, pertsonak beren eguneroko bizitzako eskakizunei beren kasa eta arrakastaz aurre egin ahal izatea sustatzen dugu.

2017. urtean, plaza kopurua proiektuaren premietara egokitu dugu, eta 20tik 10era murriztu.

EAPNren partaidetza-proiektu honetan parte hartzen jarraitu dugu: «Gaztedia: gizarte-aldaketarako motorra Europan». Proiektuaren helburua gazteek hainbat arlotan modu aktiboan parte har dezatela sustatzea da, hala nola bizitza demokratikoan, lan-merkatuan, herritartasun aktiboan, kulturarteko elkarrizketan, gizarateratzean eta elkartasunean.

**ONDOAN - GAZTEAK
EMANTZIPATZEKO EGOITZA-
PROGRAMA**


ONDOAN intentsitate handiko egoitza-baliabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren HELDUZ proiektua-ren barruan dago, eta 7 plaza ditu.

Programaren helburua egoitza-ingurune batean arreta integrala eskaintzea da, gazteei babes-eremu bat emanez, garapen afektibo, psikologiko, intelektual eta sozial egokia izateko aukera emango diona. Orobat da programaren helburua aukera ematea laguntza eta baliabideak eskura-tzeko; hau da, haien premiei egokitasunez eta eraginkor-tasunez erantzuteko behar diren gizarte-hezkuntzako baliabideak.

2017. urtean, 13 gazte pasatu dira Ondoan baliabidetik. Urte horretan, nabarmentzekoa da baliabideari egonkortasuna emateko egindako ahalegina: eguneroko dinamikak egokitu dira, eta banakako eta taldeko esku-hartzeak moldatu dira, erabiltzaileen prozesuetan.



Haurtzaroaren, familiaren eta oinarrizko laguntzaren arloa

Baikaba zentroko eguneroko jardunean, lehentasuna ematen diogu arrisku-egoerak prebenitzeari eta haurren, nerabeen eta haien familien ongizatea sustatzeari. Eskaintzen ditugun zerbitzuen bidez, pertsonen premiak aztertzen eta eskaerei erantzuten saiatzen gara.


Gure zerbitzuak helburutzat du eskola-arloko premietan laguntzea, familia-bizikidetzaren alderdietan orientabideak ematea, aisialdiko jarduera dibertigarri eta hezigarriak eskaintzea eta haientzat kezka-iturri diren gaietara buruz sentsibilizatu eta hausnartzea.

Konpromisoa dugu, hirugarren sektore sozialeko erakundeekin batera, gizarte justuago eta kohesionatuago bat sustatzeko.

Horretarako, sentsibilizazio-ekintzak diseinatu, herritarrak mobilizazio sozialetan parte hartzera eta bidegabekeriak salatzen bultzatu, eta lankidetzan dihardugu sare eta plataforma sozialetako lantaldeekin. Gizarte-eragin horren funtsezko alderdi bat da boluntarioak gure eguneroko zereginetan parte hartzera bultzatzea eta prestakuntza eskaintzea. Halaber, proiektu jakin batzuk bultzatzen ditugu, fisikoki urrun egon arren haurren ongizatean eta prebentzioan eragina dutenak eta gizartea aldatzeko borrokatzen direnak.



2017KO EMAITZA GILTZARK



AIKABA - HAURRENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ZENTROA




Gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza ematen diegu haurrei, nerabeei eta haien familiei.

Elkarrekin, helburuak ezartzen ditugu, ikasketei, familiako bizikidetzari, gizarte-harremanei eta premia psiko-afektiboetarako buruzko alderdiak lantzeko.


Familia-esparrua sendotzeko, familientzako hezkuntza-lantegiak egiten ditugu (partaideek banaka edo taldean hartzen dute parte), bai eta urteko lan-planak ere, etxean egonkortasun handiagoa lortzeko bideratuak.

Aurten, taldeak, prestakuntzaren eta hausnarketaren bidez, kulturartekotasuna jomugan duen gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzean egin du lan bereziki. Halaber, laguntza emozionala emateko teknika berriak erabili ditugu, psikodramaren bidez, betiere profesional baten gainbegiradapean.

* Hori guztia honako erakunde hauen laguntzarekin egin dugu: La Caixa Gizarte Ekintza, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Victor Tapia fundazioa, Carmen Gandarias fundazioa, eta, halaber, La Salleren Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen Koordinakundearen eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren arteko lankidetzarekin.



HARRERARAKO ETA GIZARTE-ETA ADMINISTRAZIO-JARRAIPENERAKO ZERBITZUA



Elkarteko gizarte-langileen taldea pertsonen elkartean harrera egiteaz arduratzen da. Gure zerbitzuak jaso nahi dituzten pertsonen informazioa jasotzen du, diagnostiko sozial bat egiten du eta egoera aztertzen du. Era berean, informazioa ematen du, elkarteak estali ezin dituen premiak estal ditzaketen beste baliabide batzuei buruz.

Zerbitzuan orobat ematen da orientazioa eta laguntza erabiltzaileen egoera hobetu dezaketen izapide sozial eta administratiboak egiteko, hala nola gizarte-laguntzak jasotzeko eskabideak, identifikazio-agiriak, erroldak eta osasun-txartelak.

HIRABAI - LAGUNTZAK KUDEATZEKO ZERBITZUA

Zerbitzu horrek laguntzak ematen dizkie elkartean lan-plan bat izan bai baina oinarrizko premiak estalita ez dituzten edo estaltzeko zailtasunak dituzten erabiltzaileei.

Laguntza horiek kontzeptu hauengatik ematen dira: janaria, higiena, arropa, ostua eta etxebizitzaren hornidurak, betaurrekoak, larrialdietako hortzetako tratamenduak edo botiken ordainketa.

SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMAK



Aurten, programaren azken lau urteak ebaluatu ditugu, gizarte-eraginaren esparruan ekintzak diseinatzeko. Hori guztia gizarte justuago eta kohesionatuago bat eraikitzen parte hartzeko.


Prestakuntza-jarduerak, mintegiak, jardunaldiak, lan-taldeak eta abar antolatu ditugu, eta hainbat komunikabide erabili ditugu, oinarri sozialarekin eta gure misio bera duen beste edozein pertsonarekin eta talderekin harremanetan egoteko, sensibilizatzeko eta parte hartzera bultzatzeko.

Bazterkeria eragiten duten kausak gertutik aztertzen jarraitzen dugu, eta bizikidetzara sustatzen duten tresnak diseinatzen ditugu. Ikastetxeetara eramaten ditugu ikasketza guztiak, eta hezitzaileekin eta ikasleekin hitz egiten dugu esamesen, estereotipoen eta estigmen arriskuei buruz.

Gero, beste errealitate batzuen berri izateak, inguratzen gaituen errealitatea zalantzan jartzeak eta solidarioak eta inklusiboak izateak zer aukera zabaltzen dizkigun balioesten dugu.



Nazioarteko lankidetzaz



Laugarren urtez jarraian, Elkarbanatuz elkarteak lanean jardun du Tangerreko (Maroko) Hogar Infantil Padre Lerchundi eguneko zentroarekin (ProClade Bética), pobrezia eta/edo gizarte-bazterkeria pairatzen duten edo pairatzeko arriskuan dauden familietako haurrak eta nerabeak gizarte- eta hezkuntza-arloan garatzeko eta eskolaratzeko proiektu batean.

Gutxi gorabehera 80 haur, nerabe eta haien familiak dira lankidetzaz-proiektu horren onuradunak. Proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jasotzen du.

Lehen Hezkuntzako ikasleekin, eskola-laguntza emateko jarduerak egiten dira (eskolarako materiala ere ematen da), bai eta aisialdiko jarduerak ere oporretan.

Bigarren Hezkuntzako ikasleek lanbide-orientazioarekin eta komunikazio-teknikekin lotutako jardueretan hartzen dute parte.

Bi kasuetan, lan-ildoak garatzen dira gurasoei prestakuntza emateko eta eskolako irakasleekin koordinaketa-lana egiteko.

Zehazki, alfabetatzearekin, autoestimuekin, nor bere burua zaintzearekin eta ahalduzkoekin lotutako jarduerak programatzen dira urtero amen kolektiboarekin. Horretaz gainera, aholkularitza ematen zaie prestakuntza-ibilbideei eta oinarritzko eskubideen defentsari buruz, eta aurten, genero-ikuspegia sustatzeko ekintzak gehitu dira.

Berrikuntza garrantzitsuena aitekin egindako lana da. Lan horren helburua da aitak beren seme-alaben hezkuntzan inplikaraztea, eta, horrela, amen erantzukizunaren zama arintzea.



Gizarte-partaidetza

JARDUNALDI HAUETAN HARTU DUGU PARTE:



ELKARBANATUZ MINTEGIA



PARTE-HARTZE KOMUNITARIOA ETA SAREKO LANTALDEAK



- Euskal Boluntarioen Topaketa: Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2017-2020: erronkak.
- Incorporaren prestakuntza-jardunaldiak: «Buruko osasunaren ikuspegia laneratzeko prozesuetan» eta «Prestakuntzen gizarte-eta lan-arloko abileziei buruzko lana».
- Gizarteguneko hausnarketa-guneak: «Lan-merkatua eta generoa. Konpondu beharreko gai bat»; «Inklusioa susta-tzeko esku-hartze ereduak aldatuz».
- Kristau-komunitateetako animatzaileen topaketa, La Salle.
- Elizaren gizarte-erakundearen topaketa.
- Hirugarren sektoreko erakundeetako gobernu-organoei buruz hausnartzeko jardunaldia, Bolunta.
- Askotariko adimenei buruzko prestakuntza, La Salle.
- «Bizikidetzaren sustatzeko kulturarteko sareak eta plataformak» mintegia, Matiz elkarteak.
- Bizitegiren hitzaldia Euskalit Astearen: «Konpromiso aktiboa komunitatearekin».
- UD Ikaskuntza Komunitatea: «Gizagune: bitartekaritza-lana».
- Pobrezia eta gizarte-bazterkeria pairatzen duten pertsonen partaidetzari buruzko estatu mailako III. kongresua.
- Gizarte-egoera ahuleko gazteentzako sorkuntza digitalari eta «maker» kulturari buruzko prestakuntza-programa.
- «Buenos Tratos, Buenos Ratos» lantegia. Munduko Medikak.
- Partaidetzari buruzko EAPN Euskadiren IV. topaketa.
- «Gazteria: gizarte-aldaketarako motorra Europan» programa, EAPNK antolatua.
- EAPN Erasmus + «ANAI-ARREBAK».

«Kultura-aniztasuna inklusio-faktore gisa» du izena Elkarbanatuz aurten garatutako mintegiak.

Topaketa horrek helburutzat zuen kultura-aniztasunean eta erantzunkidetasunean oinarritutako bizikidetzaren ereduak sustatzea, bi elementu horiek ezinbestekoak baitira gizarteratzeko.

Valladolideko, Kordobako eta Bartzelonako auzo batzuetan abian jarritako ekimenen berri jakiteko aukera izan genuen, ekimen horiek garatzen dituzten elkarten eskutik (Caritas, Estrella Azahara elkarte eta Comtall Fundazioa).

Lehenbizi, Elkarbanatuzek Deustuko barrutian hainbat urtez gero egiten duen lanaren berri eman genuen.

BOLUNTARIOAK

Erakunde sozial bat garen aldetik, boluntarioen garrantzia azpimarratu nahi eta behar dugu, gizarte aldatzeko eragileak baitira. Eginkizun aktiboa dute, bai eta posizionamendu soziala ere bidegabekeriaren eta berdintasun ezaren aurrean, eta elkartearen proiektuetan egiten dituzten boluntario-ekintzen bidez erakusten dute hori.

Aurten, Boluntariotzaren Kulturaren Diagnostikoa egiten hasi gara, boluntarioek elkartearen zereginari buruz hausnartzeko, bai eta elkarrekin proposamen eta ekintza batzuk egiteko ere, boluntarioen jardueraren gure misiora, ikuspegira eta balioetara bideratze aldera.

Boluntario guztiei bihotzez eskertu nahi diegu aurten erakutsitako konpromisoagatik, motibazioagatik eta dedikazioagatik.

- Harresiak Apurtuz lurralde-batzarrak eta -batzordeak, Beste Biren kontzentrazioak eta etxerik gabeko pertsonen Bilboko Udaleko batzordea.
- Partaidetzari buruzko EAPN Euskadiren IV. topaketa.
- Ekain plataformaren enplegurako prestakuntza-taldea, sare-lana enplegurako prestakuntza eskaintzen dugun esku-hartze sozialeko hirugarren sektoreko erakundeekin. «Taldea eragilea»ren parte gara.
- Albada taldea, (Bilbo sektoreko) La Salle Sarearen Ekintzek osatua (ekintza horiek lanbide-heziketa eta enplegurako prestakuntza eskaintzen dute).
- «Enplegu inklusiboa» lantaldea, lanean jardun duena sareko erakundeekin batera REASen «Enplegu inklusiborako estrategia» dokumentua egiten.
- «Kontu-ikuskapen soziala»ren lantaldea, REAS Euskadi sarearena.
- Gizardantz lantaldea, gizarte-bazterkeria baloratzeko tresnarekin lotutako BFAREN proposamen-dokumentuari buruzkoa.
- Harresiak Apurtuz koordinakundearen gazteekin lan egiteko lantaldea.
- EAPN Euskadiren hiru lan-batzordetan: Emakumea eta gizarte-bazterkeria, Partaidetza eta Haurtzaroa eta familia.
- Deustuko Unibertsitatearen antolatutako bazterkeriari eta inklusio sozialari buruzko Think Tank-ean parte hartzea.
- ORAIN taldea, helburutzat duena talde bat eratzea, neska-mutilentzat erreferente onuragarria izango dena eta heziketa emozionalarekin eta bizimodu osasungarriekin lotutako prozesuak landuko dituena.

Administrazioaren eta jarraipen ekonomikoaren arloa

- JARRAIPIEN EKONOMIKOAREN ZERBITZUA**

Kudeaketa-estilo etiko eta arduratsu baten alde egiten dugu lan, bai eta egoera ekonomiko eta finantzario orekatu eta garden baten alde ere.

- ADMINISTRAZIO-ZERBITZUA**

Gure administrazio-kudeaketari esker, eraginkortasunez antolatzen ditugu baliabide materialak, bai eta elkartearen kanpoko zerbitzuen baliabideak ere, elkartearen misioarekin bat datozenak. Halaber, administrazio-zerbitzuak hau egiten du:

- Baliabide materialak aurreztea eta modu arduratsuan kontsumitzea sustatzen eta bultzatzen du; horretarako, ingurumen-irizpideak hartzen ditu kontuan.
- Hornitzaileekin harreman eraginkorra, horizontala eta lankidetzazkoa ezartzen du.

- KALITATE-PROGRAMA**

Arloa elkartearen kalitate-programa kudeatzeaz ere arduratzen da.


- Prozesuen mapa baliatzen du.
- Jarduna bideratzen du, etengabe hobetzeko.

16 kalitate-prozesu ari gara garatzen progresiboki:



KOSTU ERREALAREN FINANTZIAZIO-ITURRIAK

Atal honetan, kostu errealaren finantziazio-iturriak zein diren zehaztuko dugu, eta finantziazio-iturri horiek 2017an kostu errealaren zer ehuneko finantzatu duten adieraziko.



KONTU-IKUSKAPENAK

Elkarbanatuz elkarteak kontu-ikuskapenak egiten ditu, aldian-aldian egin ere, zenbait alderdi ebaluatzeko, gizarte-eraginarekin, kontabilitate-kudeaketarekin eta elkartearen kudeaketan balio jakin batzuk integratzearekin lotuak.

Ebaluazio-mekanismo horiek bide ematen dute etengabe hobetzeko prozesuak garatzeko eta ezartzeko; eta, horretaz gainera, tresna apartak dira elkarte-proiektua bideragarria eta sendoa dela bermatzeko.

Kontu-ikuskapen ekonomikoa:


A-Zeta aholkulariek urteko kontuen ikuskapena egin dute, eta egiaztatu dute kontu horiek zehatz-mehatz adierazten dutela elkartearen finantza-egoera.

Kontu-ikuskapen soziala:

Konomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS) eginiko kontu-ikuskapen sozialari esker, 2017an, gure elkartearen eraginkortasun soziala eta helburuekiko jokabide etikoa ebaluatu ditugu, gizarteari eta elkartasunari begira lortutako emaitza hobetzeko asmoz.

Etika Batzordearen txostena:

Elkarbanatuz elkarteko Etika Batzordeak txosten bat egin du urtero, eta, txosten horretan, Etika Kodea elkartearen zenbateraino sartzen den ebaluatzen.



Urteko kontuak

Elkartearen 2017ko urteko kontuak aurkeztuko ditugu. Horiek egiteko, indarrean dauden kontabilitate-printzipioak eta -arauak aplikatu ditugu. Bilakaera hobeto ulertzeko, 2016ko eta 2017ko ekitaldietako zifrak erakutsiko ditugu.

EGOERA-BALANTZEA 2017ko abenduaren 31n (eurotan emanda)

AKTIBOA	2017	2016
A) AKTIBO EZ ARRUNTA	249.762,53	255.666,47
I. IBILGETU UKIEZINA	0,00	0,00
Aplikazio informatikoak	0,00	2.060,93
Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua	0,00	-2.060,93
III. IBILGETU MATERIALA	235.342,20	243.915,92
Eraikuntzak	211.711,89	211.711,89
Makineria	6.115,37	6.115,37
Bestelako instalazioak	12.497,60	12.497,60
Altzariak	66.975,36	64.091,87
Informazio-prozesuetarako ekipoa	50.995,02	46.332,70
Beste ibilgetu material batzuk	2.154,79	
Eraikinetako inbertsioak	43.229,65	43.116,27
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	-158.337,48	-139.949,78
VI. EPE LUZERAKO FINANTZA-INBERTSIOAK	14.420,33	11.750,55
Epe luzerako finantza-inbertsioak	6.438,00	6.438,00
Epe luzerako fidantzak	7.982,33	5.312,55
B) AKTIBO ARRUNTA	263.084,93	272.699,36
III. JARDUERAREN ERABILTZAILEAK ETA ZORDUNAK	25.121,33	46.016,76
Jardueraren beraren erabiltzaileak	25.121,33	46.016,76
IV. MERKATARITZA-ZORDUNAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTUAK	184.020,84	178.541,72
Administrazio Publikoak	184.020,84	178.541,72
VII. EPE LABURRERAKO PERIODIFIKATZEAK	1.902,24	2.387,11
Aurrez ordaindutako gastuak	1.902,24	2.387,11
VIII. EFEKTIBOA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BALIOKIDE BATZUK	52.040,52	45.753,77
Kutxak	3.330,12	2.844,82
Bankuak eta Kreditu Erakundeak	48.710,40	42.908,95
AKTIBOA, GUZTIRA	512.847,46	528.365,83
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2017	2016
A) ONDARE GARBIA	143.818,96	127.932,49
A-1) FUNTS PROPIOAK	143.818,96	127.932,49
II. ERRESERBAK	0,00	-15.304,25
Borondatezko erreserbak	0,00	-15.304,25
III. AURREKO EKITALDIETAKO SOBERAKINAK	127.932,49	91.277,30
Soberakina	127.932,49	91.277,30
IV. EKITALDIAREN SOBERAKINA	15.886,47	51.959,44
Ekitaldiaren emaitza	15.886,47	51.959,44
B) PASIBO EZ ARRUNTA	202.870,99	223.990,68
II. EPE LUZERAKO ZORRAK	202.870,99	223.990,68
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak	168.837,03	185.990,68
3. Epe luzerako beste zor batzuk	34.033,96	38.000,00
C) PASIBO ARRUNTA	166.157,51	176.442,66
III. EPE LABURRERAKO ZORRAK	83.153,65	86.183,01
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak	83.153,65	86.183,01
3. Epe laburrerako beste zor batzuk	0,00	0,00
VI. HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINTZEKO BESTE KONTU BATZUK	58.184,72	65.081,08
1. Hornitzaileak	5.094,06	8.930,45
2. Beste hartzekodun batzuk	53.090,66	56.150,63
-Ordaindu gabeko ordainsariak	0,00	0,02
-Herri-ogasuna, hartzekoduna atxikipenengatik	30.205,49	30.735,20
-Gizarte-segurantzaren erakundeak, hartzekodunak	22.885,17	25.415,41
VII. EPE LABURRERAKO PERIODIFIKATZEAK	24.819,14	25.178,57
Sarrera aurreratua	24.819,14	25.178,57
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	512.847,46	528.365,83

GALDU-IRABAZIEN KONTUA 2017ko abenduaren 31n (eurotan emanda)

	2017	2016
A) EKITALDIAREN SOBERAKINA		
1. Erakundearen diru-sarrerak jarduera propioagatik	476.313,58	486.992,86
a) Bazkide eta afiliatuen kuotak	52.651,04	105.340,40
b) Erabiltzaileen ekarpenak	25.220,62	26.694,63
c) Promozioen, babesleen eta lankidetzen diru-sarrerak	15.521,20	23.715,05
c) Ekitaldiaren emaitzari egotzitako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	382.920,72	331.242,78
2. Salmentak eta jardueraren beste ohiko diru-sarrera batzuk	914.467,81	995.249,01
3. Laguntzen eta beste batzuen ondoriozko gastuak	-14.402,30	-10.545,27
a) Dirulaguntzak	-14.402,30	-10.545,27
4. Izakinen aldatetarako		
5. Elkarrekin bere aktiborako egindako lanak		
6. Hornikuntzak		
7. Jardueraren beste diru-sarrera batzuk	660,66	4.671,13
8. Langile-gastuak	-1.056.533,02	-1.087.961,37
9. Jardueraren beste gastu batzuk	-282.363,74	-312.594,84
10. Ibilgetuaren amortizazioa	-18.831,33	-20.807,85
13. Hondatzea eta ibilgetuak besterentzearen emaitza	-41,94	0,00
A-1) JARDUERA PROPIOAREN SOBERAKINA	19.269,72	55.003,67
14. Finantza-sarrerak		
15. Finantza-gastuak	-3.383,25	-3.044,23
17. Kanbio-diferentziak		
A-2) FINANTZA-SOBERAKINA	-3.383,25	-3.044,23
A-3) ZERGA AURREKO SOBERAKINA	15.886,47	51.959,44
18. Etekinen gaineko zerga	0,00	0,00
A-4) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA, EKITALDIAREN SOBERAKINEAN JASOA	0,00	0,00
B) ONDARE GARBIARI ZUZENEAN EGOTZITAKO SARRERAK ETA GASTUAK		
1. Jasotako dirulaguntza publikoak	160.466,20	115.190,72
2. Jasotako dohaintzak eta legatuak	215.712,30	207.603,91
B-1) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ONDARE GARBIAN ZUZENEAN AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTUENGATIK	376.178,50	322.794,63
C) EKITALDIKO SOBERAKINEAN BERSAILKATUAK		
1. Jasotako dirulaguntza publikoak	-160.466,20	-115.190,72
2. Jasotako diru-laguntza pribatuak	-215.712,30	-207.603,91
C-1) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ONDARE EKITALDIKO SOBERAKINEAN BERSAILKATZEAGATIK	-376.178,50	-322.794,63
D) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ZUZENEAN ONDARE GARBIARI EGOTZITAKO SARRERA ETA GASTUENGATIK	0,00	0,00
E) IRIZPIDE-ALDAKETENGATIK EGINDAKO DOIKUNTZAK		
F) ERROREENGATIKO DOIKUNTZAK		
H) BESTE ALDAKETA BATZUK		
I) EKITALDIKO ONDARE GARBIAKO		
ALDAKETEN EMAITZA, GUZTIRA	15.886,47	51.959,44

PROIEKTUEN KOSTU ERREALA ETA GASTU OROKORRAK

Elkarrekinaren kostu ekonomikoa «kostu erreal» baino pixka bat baxuagoa da, honako arrazoi hauek direla eta:

- Bi etxebizitzaren lagapena doan, egoitzetako esku-hartzearen arloko proiektuak egiteko.
- Bizkaiko Elikagai Bankuak emandako elikagaiak.
- Langileak. Izan ere, kontuan hartu behar dugu boluntarioek onginaldi hutsez egindako lana.

Boluntarioei eta diruzkoak ez diren ekarpenei dagozkien kostuen gorakada:

<i>Errentamenduak eta kanonak (1)</i>	21.600,00
<i>Janaria, garbiketa-tresnak eta bestelakoak (2)</i>	333,47
<i>Langile-gastuak (3)</i>	1.560,00
GUZTIRA	23.493,47

(1) Bi etheen hileko alokairua, gutxi gorabehera, 1.800 € litzateke.

(2) 705 kilo elikagai jaso dira Bizkaiko Elikagaien Bankutik; jasotakoaren balioa 333,47 € inguru da.

(3) 110 ordu urtean, gutxi gorabehera 1.560 euroren balioa dutenak.

Lankidetzaren sareak

Sarean egiten dugu lan, hirugarren sektoreko erakundeen elkarlana sustatuz eta helburu komunak lortzeko informazio-fluxu aberasgarria bultzatuz. Horregatik, parte hartzen jarraitzen dugu kide garen sare hauen zuzendaritza-batzordeetan, lantaldeetan, batzarretan, kanpainetan, ekimenetan eta abarretan:

La Salleko Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen Sarea



Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Sarea



Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkarte



Danok Bizilekua Izatearen eta Aterpe bakoien aldeko Plataforma



Etorkinei laguntza emateko Euskadiko GKE-en koordinakundea



Ekain Sarea - Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak



Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea



Zero Pobrezia Kanpaina



Proiektuak eta laguntzako etxebizitzak dituzten entitateen federazioa



Fiare Proiektuari Laguntzeko Euskal Sarea






Komunikatzeko bideak

www.elkarbanatuz.org

QR kodea:



Jarrai iezaguzu sare sozialetan:

 <http://www.facebook.com/elkarbanatuz>
 @elkarbanatuz
  <http://www.youtube.com/user/elkarbanatuz>



Ohar-taula digitala:



La Salle ARLEP barrutia:



Aldizkari elektronikoa:



Halaber, gizarte-mobilizazioaren bidez egiten dugu bat zuekin:



Lagundu iezaguzu

BOLUNTARIOTZA:

Erakundeari laguntzeko modu asko daude, eta horietako bat boluntario izatea da. Elkarbanatuzen hainbat proiektutan lagundu dezakezu, eta babes eman diezagukezu hezkuntza-ekintzetan, aisiakoetan, bizikidetzakoetan, laguntza pertsonalekoetan eta enplegurako prestakuntzakoetan.

EGIN EKARPEN BAT

○ Dohaintza bat:

Erabiltzeko egoera onean dauden tresnak, ekipoak, altzariak eta bestelako bitartekoak behar ditugu gure jarduerak egiteko. Soberan duzun horixe izan daiteke geuk behar duguna, proiekturen bat aurrera eramateko. Hala den jakiteko, mesedez, jo ezazu guregana.

○ Etxebizitza edo lokal baten erabilera uztea:

Ba al duzu hutsik dagoen lokal, bulego edo etxebizitzaren bat? Haren erabilera uzten badiguzu, laguntza itzela emango diguzu gure misioa betetzeko, erabiltzaile gehiagori arreta emateko aukera emango baitiguzu.

○ Gure proiektuetarako laguntza ekonomikoa:

Aldiroko ekarpen ekonomikoak egiten dizkigute gure laguntzaileetako batzuek, eta, ekarpen horien bidez, premiazkoa duten egonkortasuna ematen diete gure proiektuei. Ekarpen ekonomiko puntualak egitea da gure jarduerari laguntzeko beste aukera bat.

Interesatuak honela jaso dezakete informazioa:

- Web-orriaren eta harremanetarako formularioen bidez: www.elkarbanatuz.org
- E-posta erabilia: voluntariado@elkarbanatuz.org eta/edo colabora@elkarbanatuz.org
- Telefonoz: 94 475 76 13

